Xedapen Orokorrak

OSASUN SAILA

1190

ERABAKIA, 2009ko otsailaren 4koa, Osakidetza Entitate Publikoaren Administrazio Kontseiluarena, 2009ko ekitaldian zehar osasun-arloko eta irakaskuntzako zerbitzuengatik ordaindu beharra duten hirugarrenei kobratuko zaizkien tarifak onartzen dituena.

Entitate Publikoko zerbitzu-erakundeek egun badituzte tarifa batzuk, eta, hain zuzen ere, osasuneko zerbitzu-erakunde horien bidez osasun-arloan edo irakaskuntzan zerbitzuak emandakoan, tarifa horiek erabiltzen dituzte hirugarrenei zerbait kobratu beharra dagoenean; baina, ikusi da beharrezkoa dela tarifa horiek eguneratzea.

Ildo horretatik, gogoratu behar da Osakidetza Entitate Publikoaren estatutu sozialetan eskumen-multzoa ematen zaiola erakunde zentralari (azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua); horien artean, irizpide orokorrak zehazteko gaitasuna eta prezioen politika proposatzekoa (12. artikulua, 4.e idatz-zatia).

Osakidetza Entitate Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak proposamena aurkeztu du tarifak handitu daitezen; proposamen hori ikusita, eta Administrazio Kontseilu honek dituen eskumenak erabilita (Osasun-arloa antolatzeko 8/1997 Legearen 22. artikuluko 1 eta 2. puntuak), erabaki hau hartu da:

ERABAKIA:

Lehenengoa.– Tarifa berriak onartzea; beraz, Osakidetza Entitate Publikoak ondoren kontzeptuka sailkatuta ezarri diren ildoen arabera kobratuko ditu, zerbitzua emandakoan, ordaindu beharra duten hirugarrenengandik jaso beharreko diru-kopuruak.

Erabakia eragingarria eta jendearentzat jakina izan dadin, betekizun bakarra dago: tarifa-liburua argitaratu behar da eta ordaindu beharra dutenentzat eskuragarri jarri.

Bigarrena.– Honako hauek izango dute tarifak ordaindu beharra: irailaren 15eko 1030/2006 Errege Dekretuaren IX. eranskinean zehaztutako egoeretarik edozeinetan dauden pertsona fisiko zein juridiko guztiek (1030/2006 Errege Dekretua, Osasun Sistema Nazionaleko ohiko zerbitzuen zorroa eta berau eguneratzeko prozedura ezarri zuena; 2006ko irailaren 16ko BOE); kontuan hartu behar da emandako zerbitzua fakturatutakoan sorraraziko direla tarifak.

Hirugarrena.– Entitate Publikoko zuzendari nagusiaren eginkizuna izango da egin beharreko jardun

Disposiciones Generales

DEPARTAMENTO DE SANIDAD

1190

ACUERDO de 4 de febrero de 2009, del Consejo de Administración del Ente Público Osakidetza, por el que se aprueban las tarifas por prestación de servicios sanitarios y docentes a terceros obligados al pago durante el ejercicio 2009.

Teniendo en cuenta que actualmente existen unas tarifas de aplicación para las organizaciones de servicios del Ente Público que posibilitan la facturación a terceros de los servicios sanitarios y docentes que se presten en las diferentes organizaciones de servicios del Ente y que se hace necesaria su actualización.

Resultando que los Estatutos Sociales del Ente Público Osakidetza (Decreto 255/1997, de 11 de noviembre) determinan en el conjunto de facultades de la Organización Central, la capacidad de definir criterios generales y proponer la política de precios (artículo 12 apartado 4.e).

Vista la propuesta de incremento de las tarifas presentada por la Dirección General del Ente Público Osakidetza y de acuerdo con las capacidades de este Consejo de Administración (Ley 8/1997, de Ordenación Sanitaria artículo 22 puntos 1 y 2), se adopta el siguiente

ACUERDO:

Primero.– Aprobar las cuantías que resultarán de aplicación en el Ente Público Osakidetza por la prestación de servicios a terceros obligados al pago de los mismos, conforme a las líneas que por los distintos conceptos se establecen en el presente Acuerdo.

Para su publicidad y eficacia será requisito único la edición de un libro de tarifas que estará a disposición de los terceros que se encuentren obligados al pago de las mismas.

Segundo.– Estarán obligados al pago de las respectivas tarifas las personas físicas o jurídicas que se encuentren comprendidas en cualquiera de los supuestos contemplados en el Anexo IX del Real Decreto 1030/2006, de 15 de septiembre, por el que se establece la cartera de servicios comunes del Sistema Nacional de salud y el procedimiento para su actualización, (BOE del 16-09-2006), entendiéndose devengados los correspondientes importes desde el momento de la facturación del servicio.

Tercero.– Se encomienda a la Directora General del Ente Público la realización de cuantas actuaciones sean

guztiak egitea hauek betetzeko: aurkeztutako egituraren osagarri, prestazio berriak sartu behar ditu zerbitzu-zorroan, eta medikuntzan eta kirurgian fakturazio berezia izan dezaketen prozedura berriak zeintzuk diren zehaztu behar du, prozedura horien osagaiak eta zatiak zehaztuta eta horiek dakartzaten gastuak xehekatuta; azkenik, prozedura horietatik kanpo dauden diagnosi eta tratamenduko probak, bereiz daitezkeenak, zeintzuk diren zehaztu behar du.

Laugarrena.– Entitate Publikoari baimena ematen zaio bestelako hirugarren batzuekin hitzarmenak edo akordio partikularrak egin ditzan, erabaki honetan jasotako zerbitzuak emateko. Prezio-baldintza onuragarriagoak ezarri ahal izango dira ondorengo baldintzen arabera:

a) Beharrezkoa da Osasun Sailaren eskaera guztiak bete ondoren bestelako zerbitzuak eskaintzeko modua egotea.

b) Sistema publikoarekiko elkartasun-printzipioa errespetatu behar da, sistemarekin zerikusirik ez dutenei ematen zaizkien zerbitzuak diru publikoarekin ez ordaintzeko.

c) Osasun-erakunde publikoak jardun horretan duen interesa justifikatzea, irizpide objektiboak erabilita.

– Bezeroen berariazko ezaugarriak (instituzio publikoak, gizarte-erakundeak, irabazi-asmorik gabeko elkarteak).

– Ekoiztu beharrekoaz gain, gehiagotarako gaitasuna ematen duten aparteko egoerak.

– Negozio-bolumena.

Puntu honetan jasotzen diren hitzarmenak edo akordio partikularrak azalpen-memoriarekin batera aurkeztu behar dira. Memoria horretan, aipatutako alderdi guztiak jasoko dira. Hitzarmen edo akordioak zuzendari nagusiak sinatuko ditu, baldin eta Entitate Publikoaren erakunde guztiei edo zerbitzu-erakunde bati baino gehiagori lotuta badaude.

Hitzarmena edo berariazko erabakia, dakarren lotura esklusiboa denean, dagokion erakundeak berak sinatuko du; dena dela, Entitate Publikoaren erakunde zentralak baimena eman behar du aldez aurretik, estrategia-planarekiko koherentzia eta egokitasuna lortzeko beharrezko diren baldintzak bermatuta egon daitezen. Zuzendari nagusiak eman beharreko jarraibideak eman ditzake, erabaki hau eragingarria izan dadin.

Erabaki hau argitaratzen den egunetik aurrera, indarrean dauden hitzarmenetan ezarritako kopuruak eguneratu eta egokitu egingo dira —behar izanez gero—, hemen ezarritako zenbatekoen arabera; dena dela, prezio-baldintza hobeak ere jar litezke, baina puntu honetan gorago xedatutakoa betez gero.

Bosgarrena.– Entitate Publikoaren zuzendari nagusiari baimena ematen zaio talde jakin eta zehatz batzuen inguruan hitzarmen bereziak sina ditzan; horrelakoetan, necesarias para la inclusión de nuevas prestaciones en la Cartera de Servicios, como complemento de la estructura presentada, definiendo nuevos procesos médicos y quirúrgicos susceptibles de facturación singular, con expresión de los elementos que forman parte de los mismos e incluyendo sus costes derivados, así como las pruebas diagnósticas y de tratamiento singularizables que no formen parte de dichos procesos.

Cuarto.– Se autoriza en el Ente Público la negociación y suscripción de Acuerdos particulares o Convenios con terceros, que tengan por objeto la prestación de servicios incluidos en el presente Acuerdo y en los que se podrán establecer condiciones de precio más favorables de acuerdo con lo siguiente:

a) Siempre que exista capacidad excedentaria de actividad tras la cobertura de la demanda planteada por el Departamento de Sanidad.

b) Se respete el principio de solidaridad con el sistema público, de forma que no puedan financiarse con fondos públicos prestaciones realizadas a terceros ajenos.

c) Se justifique el interés del Ente Público en función de unos criterios objetivos

– Características específicas de los clientes (Instituciones públicas, sociales, sin animo de lucro).

– Situaciones excepcionales de capacidad de producción marginal.

– Volumen de negocio.

Los Acuerdos particulares o Convenios a los que se refiere este punto deberán proponerse con una memoria justificativa que examine los aspectos citados y serán suscritos por la Directora General cuando vinculen al conjunto de organizaciones del Ente Público o a más de una de sus organizaciones de servicios.

Corresponderá su suscripción a la organización respectiva en caso de vinculación exclusiva, requiriéndose en todo caso autorización previa de la Organización Central del Ente Público a efectos de garantizar las condiciones necesarias de coherencia y adecuación a la planificación estratégica. La Directora General podrá dictar las Instrucciones pertinentes para la operatividad de este Acuerdo.

A partir de la fecha de la publicación del presente Acuerdo las cuantías actualmente fijadas en los Convenios existentes se actualizarán y adecuarán, en su caso, conforme a las cuantías previstas en el mismo, todo ello sin perjuicio del establecimiento de condiciones de precio más favorables sujetas a los términos de lo dispuesto anteriormente en este punto.

Quinto.– Se autoriza a la Directora General del Ente Público para la suscripción de convenios especiales, en relación a colectivos concretos y determinados, para la

dena delako taldeko pertsona edo onuradun bakoitzeko hilero/urtero hainbesteko kopuru jakin bat kobratuta emango da asistentzia sanitarioa.

Seigarrena.– Entitate Publikoaren zuzendari nagusiari baimena ematen zaio behin-behineko tarifak ezar ditzan erabaki honetan zehaztu gabe geratu diren egoeretan, betiere, baliabideak hobeto erabiltzeko eta kudeatzeko abagune egokia bada edo egoera estrukturalak hala eskatzen badu; tarifa horiek ezartzeko, bestalde, arrazoiak azaldu beharko ditu ebazpen baten bidez. Dena den, tarifa horiek Administrazio Kontseiluak berretsi behar ditu bi hileko epean, gehienez ere.

Zazpigarrena.– Erabaki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, eta 2009ko urtarrilaren 1ean emango ditu ondorioak.

Erabakia argitaratzen den egunetik aurrera, Osakidetza Entitate Publikoko zerbitzu sanitarioetako erakunde guztietan interesdunen eskura jarri behar da entitate publikoaren tarifa-liburua —osasun–zerbitzuak hartzeagatik ordaindu beharra duten hirugarrenei eskatu behar zaizkien tarifena, alegia—. Aplikatzekoak diren zenbatekoen arabera egongo da eguneratuta.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko otsailaren 4a.

Administrazio Kontseiluko lehendakaria,
GABRIEL M.ª INCLÁN IRIBAR.

prestación de asistencia sanitaria en base al pago de una cantidad mensual/anual por persona o beneficiario perteneciente al colectivo de que se trate.

Sexto.– Se autoriza a la Directora General del Ente Público, mediante resolución motivada y siempre que concurran circunstancias estructurales o de oportunidad para una mejor gestión y aprovechamiento de los recursos, a establecer nuevas tarifas provisionales para supuestos no contemplados en el presente Acuerdo, debiendo ser elevadas al Consejo de Administración para su ratificación en el plazo máximo de dos meses.

Séptimo.– El presente Acuerdo se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco, surtiendo efectos a partir del día 1 de enero de 2009.

Asimismo, a partir del día de su publicación, en todas las organizaciones de servicios del Ente Público Osakidetza deberá encontrarse a disposición, para su consulta por los interesados, el libro de Tarifas del Ente Público por la prestación de servicios a terceros obligados al pago, actualizado conforme a las cuantías que resultan de aplicación.

Vitoria-Gasteiz, a 4 de febrero de 2009.

El Presidente del Consejo de Administración,
GABRIEL M.ª INCLÁN IRIBAR.